

MOZIO ARRUNTA

Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailari Nautikoko moilako lanak egin ditzala eskatzeari buruzkoa

Juan Carlos Izagirre Hortelano EH BILDU udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako **MOZIO ARRUNTA** hau aurkezten du, Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailari Nautikoko moilako lanak egin ditzala eskatzeari buruzkoa

JUSTIFIKAZIOA

Azken aldian, eta uda partean nabarmen, Donostiako Kaia eta Parte Zaharreko bizilagunen artean kexa bat nagusitu da, Nautikoko jaitsieren ingurukoa. Izan ere, lau jaitsieretatik bi baldintza kaxkarretan eta itxita daude azken bolada honetan.

Herritarren askorentzat, Donostiako kaia antzinako izaera publiko eta komunitarioa galtzen ari da. Eta beste horrenbeste gertatzen da Nautiko inguruarekin. "Haren aldamenean itsasora irteten den plataforma donostiarren leku gogokoenetako bat da egonean patxadaz egoteko". Horrela irakurtzen da Donostia Turismoa atarian. Hala ere, ingurune horren aldizkako itxiera etengabea izan da azken urteetan, eta une honetan bertan ere itxita aurkitzen da.

Donostiako Udalak hainbatetan azaldu duenez, Nautikoko pasabidea eta bertatik itsasora jaisteko dauden bi eskailerak Euskadiko Kirol Portuak (EKP) erakundearen ardura dira, eta 2020an, adibidez, ixteko, haien egoera txarra eta horrek erabiltzaileentzat zekarren arriskua argudiatu zituen. Bost urte geroago, zehazki 2025eko uztailaren 18an, Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak iragarri zuen eremu hori konpontzeko administrazio-prozedura hasi zuela, baita lanak burutzeko epea lau hilabetekoa izango zela ere. Baina urtea amaitzear dagoen honetan, azaroan, Nautikoak egoera berean jarraitzen du eta lanek hasi gabe.

MOZIOA ARRUNTA

1.- Donostiako Udalbatzaren Osoko Bilkurak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailari berehalakoan hasi eta amaitu ditzala Nautikoko moilaren lanak, donostiarrek urte osoan erabiltzen duten eremua den heinean.

Donostian, 2025eko azaroaren 11ean

Juan Karlos Izagirre Hortelano

EH Bildu udal taldeko zinegotzia